

ITZIAR ZUBIZARRETA GALTZAGORRI ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Gizarteak ipuin tradizionalak sortu ditu haur txikiei bizitza nolakoa den erakusteko»

'Bularretik mintzora' zero eta sei urte arteko umeentzako disko-liburua aurkeztuko du gaur Zubizarretak Durangon

I. GURRUTXAGA

Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartearen presidente eta *Bularretik mintzora* disko-liburuaren sustatzaile nagusienetako bat da Itziar Zubizarreta (Ordizia, 1952). Disko-liburu hori «egitasmo oso baten euskarria» dela nabarmendu du, Galtzagorri eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak elkarlanean egindakoa. Bi helburu ditu: literatur tradizioaren galerari aurre egitea eta umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea.

Orain arte ez da horrelako lanik kaleratu Euskal Herrian. Hutsune bat betetzera dator?

Apenas jaso dira horrelakoak. Haur kantak, sehaska kantak eta haur jolasak ahozko tradizioari jarraituta jaso dira. Ia denak tradiziotik hartutako piezak dira, eta trataera musikala ere periferikoa da, ez du erritmo arrotzik. Kantak bere horretan jasotzen dira, umei kantatzen zaien bezala, edo guk behintzat gure gurasoetatik ikasi ditugun bezala. Guraso gazteentzako egokiak dira kanta hauek guztiak, ipuinak eta pieza guztiak erakusteko eta imitatzeko errazak direlako.

Ume txikien gurasoei eta hezitzaileei bideratuta dago.

Disko-liburu hau kanpaina baten oinarria da, edo kanpaina bati lagunduko lioken material osagarri bat da. Irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina baten bokazioa du. Hau dena sortu genuenean irakurzaletasunari begira sortu genuen, eta ume txikien gurasoei eta irakasleei begira. Bi helburu nagusi ditu: literaturaren tradizioaren galerari aurre egin, eta haurren irakurzaletasuna sustatzea.

Zer biltzen du disko-liburuak?

Lau ataletan banatu dugu. 0-6 urteko bilakaera eduki dugu kontuan, eta orduan, atal bakoitzak adin bati erantzuten dio. Lehenengo atalean sehaska kantak daude, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan kantatzen direnak, etxean jasotakoak. *Bularrean* izena du atal horrek. Bigarrenari *Magalean* deitu diogu, haurra esertzen denetik egiten zaizkion txalo kantak, trosta kantak, hatzak zenbatzeko kantak biltzen dituenak. Hirugarren atala *Jolasean* da, eta gero eta mugimendu handiagoa dute kanteak. Laugarren atalean, *Hizketan*, aho-korapiloak lantzen ditugu, ipuin erritmikoak.....

AEBetan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egin dira horrelako saiakerak, eta haietan frogatu dute literaturak eta irakurtzeak umearengan onurak dauzkala. Horixe bultzatzera dator?

Hau elikadura bat da. Gorputza elikatzen dugun bezala, gure burua elikatzen dugu era honetako jolasak eginez. Irakurketaren estrategiak ari gara lantzen, entzumena eta ulermena lantzeko. Horiek dira azkenean irakurtzerakoan eta idazterakoan erabiliko ditugun estrategia berdinak. Orduan, gure apustua da estrategia horiek umeak jaiotzen diren momentutik erabiltzen hastea.

Psikoanalisi kontuak ere bai?

Hor bi lotura klase ditugu: alde batetik kanta, ipuin eta jolas literario horiek guztiak erabiltzea, lotura afektibo handi bat sortzen delako; bestetik, gizarteak ipuin tradizionalak sortu ditu haur txikiei bizitza nolakoa den erakusteko, eta barrenean pertsona guztiok ditugun pultsio, nahigabe, hutsune eta beldur guztiak orekatzeko.

Gaurko aurkezpena eta gero, Durangon lau zpabost egunez izango zarete, eta gero, abenduaren erdialdean, formazio saio batzuk egin behar dituzue Tolosan. Zer da zehazki egin behar duzuen?

Bi hitzaldi emango ditugu, bat Juan Karlos Alonso psikologoak, eta bestea Juan Cruz Igerabide idazleak. Hizkuntzaren tradizioari eta poesiak hizkuntzan eta afektibitatean duen garrantziari helduko dio Juan Kruzek, eta garapen afektibo eta kognitiboan haur literaturak duen loturaz hitz egingo du Juan Karlosek.

Emozioaz ari zara.

Emozioaz, eta garapen intelektualaz. Hiru planotan ari gara lanean: afektiboa, soziala eta intelektual.

Landutako gai baten emaitza da.

Gaia halakoa da, eta kanpaina ondo ateratzen bazaigu zientzia oinarri bat sustatuko dugu. Euskal Herrian inoiz egin ez dena egin dugu: lan sistematizatu bat, orain arte bakoitza bere kabuz ibili baita.